

EKONOMIA SUSTATZEKO PLANARI GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK EMANDAKO DIRU LAGUNTZEN INGURUKO MOZIOA

Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua ematen dion aukera baliatuz, Ekonomia Sustatzeko Planari Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako diru laguntzen inguruko MOZIO hau aurkezten du, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2017ko ekainaren 19ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiak, aurten, 27.000 euroko ekarpena egin dio Udalak-Sustapenak aurkeztutako ekonomia sustatzeko planari. Hau da, Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Departamendua, Bilduren gobernuaren azken urtean, 589.716 euroko diru-laguntzatik, eta ezertxo ere ez eman ondoren, 27.000 euroko diru-laguntzara pasatu da. Egoera larri honetan, Udaltzaren honako mozio hau onartu zuen, EH Bildu udal taldeak aurkeztutakoa: *"Donostiako Udaltzaren Alkateari eskatzen dio behingoz gaiari hel diezaiola, lehentasun osoz, eta bi hilabeteko epean Aldundiarekin akordioa itxi dezala, benetako ekarpenak lortuz, Ekonomia sustatzeko plana eraginkorragoa izan dadin."*

Harrezkero, alkatearen eta Aldundiko foru diputatuaren arteko ohiko argazkia ikusi genuen hedabideetan, baina emaitzarik gabekoa. Alkatetzan bi urte egon eta gero, kudeaketa negargarri baten aurrean gaude. Kontuan hartuta, batik bat, langabezia dela gure hiritarren kezka nagusietako bat.

EAJk eta PSEk gobernatzeko sinatutako akordioak, hirugarren puntuan ("Berrindartzeko ekonomikorako eta giza garapenerako plana"), honela dio: "Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera sustapen ekonomikorako planak garatzeko bai Donostia mailan bai Gipuzkoa mailan ere".

Alkateak, batzordean, bi bileraren berri eman eta bi erakundeetako teknikoek elkarlanerako prestasuna agertu zuen. Besterik ez.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

Kudeaketa negargarri hau ikusita, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

MOZIOA

1-Donostiako Udalbatzak alkateari eskatzen dio martxoan onartutako mozioa lehenbailehen bete dezala eta lortutako ekarpenak 2017ko sustapen planean txerta daitezela, beste urtebete gal ez dadin.

Donostian, 2017ko ekainaren 23an

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia